



KARITATE EGUNA 2023 – Zuk zerikusi handia duzu. Aukera gara. Itxaropena.

Liturgia-gidoia.
Corpus Christi eguna. 2023ko ekainak 11, igandea.

Sarrera

Egun on eta ongi etorri Corpus egunera!

Jesusen Gorputza eta Odola ezinbestekoak dira gure kristau-bizitza, bizitza pertsonala eta komunitarioa elikatzeko. Zatitzea eta partekatzea kristau-bizitza osasuntsu baten zantzuak dira, bizitza hori Jesusengandik elikatzen delako, eta Harengandik mundu hau elkartasunez eta karitatez betetzen du.

Eukaristia bakoitzean, Kristok bere Gorputza eta Odola gurekin partekatzen ditu. Kristoz asebeteta, dena partekatu nahi dugu, bereziki behar handiena dutenekin. Eukaristiak anaitasuna lantzeko eta eraikitzeko bizitza batera bultzatzen gaitu.

Penitentzia-ekintza

Karitatea gure urritasunen, mugen eta bekatuen aitortpena ere bada. Karitatea, batez ere, horiek barkamenarekin gainditzea da, Jainkoaren barkamenarekin eta gure arteko barkamenarekin.

- Jauna, gure anai-arreba atsekabetuen zauri eta gabezietan ikusi nahi zaitugulako, **ERRUKI, JAUNA.**
- Kristo, fedean saiatuak, itxaropenaren kutsatzaileak eta anaiarteko karitatearekiko leialak izan gaitezen, **KRISTO, ERRUKI.**
- Jauna, geure berekoikerietatik askatu gaitezen eta Zugandik jasotzen duguna partekatzen jakin dezagun, **ERRUKI, JAUNA.**

Irakurgaiak

1. irakurgaia. 8, 2-3.14b-16. dt: *Israelgo herriak basamortuan barrena agindutako lurrera arteko zeharkaldi gogorra du gogoan. Gaur egun ere jende askok zeharkatzen du basamortu luze eta neketsu bat bere bizitzan. Orduan bezala, ez dezatela falta ura, mana, itxaropena eta eskain diezaiekegun maitasuna.*

2. irakurgaia. 1 Kor 10,16-17: *Pablok esaten du Jesusen gorputzak eta odolak batzen gaituztela Eukaristian. Eguneroko bizitzan, Eukaristia egiten dugu egun bakoitzerako*



behar dena inork faltan izan ez dezan daukaguna konpartitzen badugu.

Ebanjelioa. Jn 6, 51-59: Jesus betiereko Bizitaraino irauten duen jaki bezala ematen zaie bere jarraitzaileei. Banatzea eta partekatzea bizitza pozgarriaren adierazgarri da, eta Bizitza osoaren eta behin betikoaren aurrerapena.

Fededunen otoitza

Jesusen adibideak akuilaturik, Aitarengana jotzen dugu, abegi onean eta entzunda sentitzen direnen konfiantzarekin.

- Elizaren eta Corpus eguna ospatzen dugun komunitateen alde, Jesusek erakusten digun 'zatitu eta partekatu' praktikan jar dezagun, eta hainbesterezentzat aukera eta itxaropena izan gaitezen. *Egin dezagun otoitz. E/: Entzun Jauna, gure eskaria.*
- Basamortu gogorreko egoera latzak pairatzen jarraitzen dutenengatik. Indarkeria-, gerra-, mehatxu-, jazarpen-, abusu- eta bazterketa-baldintzetan bizi direnengatik; duintasunez eta eskuzabaltasunez hartuak, lagunduak eta tratatuak sentitu daitezten. *Egin dezagun otoitz. E/: Entzun Jauna, gure eskaria.*
- Jainkoak gure familia eta pertsona maiteak bedeinka ditzan, eta bedeinkazio hori hedatzen jakin dezagun, Jainkoarengandik eta bizitzatik jasotzen duguna partekatuz. *Egin dezagun otoitz. E/: Entzun Jauna, gure eskaria.*
- Anaitasuna, justizia, elkartasuna eta karitatea gure bizitza pertsonalean, familia-bizitzan eta gure elizbarrutiko komunitateetan ohikoak izan daitezten. *Egin dezagun otoitz. E/: Entzun Jauna, gure eskaria.*
- Parrokiako eta elizbarrutiko Caritasi gure lankidetzaren babeseta eta pizgarria sekula falta ez dakien, eta behartsuen artean Kristoren presentziaren ikur emankorra izan daitezten. *Egin dezagun otoitz. E/: Entzun Jauna, gure eskaria.*

Diru-bilketa

Pertsona eta komunitateen, emaileen eta bazkideen laguntza eskuzabalik gabe, eta boluntarioen parte-hartze eskuzabalik gabe, Caritas ez litzateke ezer izango!

Guztion ahaleginarekin, posible da bestelako mundu bat irudikatzea eta eratzea, non bakea, justizia eta anaitasuna partekatutako ondare eta guztiontzako zorion-arrazoi izango diren. Eskerrik asko!